

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean, irudi pertsonala zaintzea erronka bat da pertsona askorentzat, baina aldi berean aukera handia ere bada norberaren konfiantza eta ongizatea hobetzeko. Erabiltzaile askok zalantzak izaten dituzte makillaje egokiena, arropa-konbinazio onena edo ilearen zaintza egokia aukeratzeko, eta askotan informazio gehiegi edo kontrajarriak nahasmena sortzen du.



FastLooking proiektuak

behar horri erantzun nahi dio, adimen artifizialean oinarritutako irtenbide berritzaile baten bidez. Gure ispilu adimendunak erabiltzaile bakoitzaren ezaugarri fisikoak eta gustu pertsonalak kontuan hartzen ditu, aholku fidagarriak eta pertsonalizatuak eskaintzeko. Horrela, erabiltzaileak bere estilo propioa aurkitu eta garatzeko aukera izango du, segurtasun handiagoz.

Datuen arabera, gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dituzte aplikazio digitalak irudi pertsonala zaintzeko, eta etorkizunean joera horrek gora egingo duela aurreikusten da. Hori dela eta, FastLookingek behar erreal eta egungo bati erantzuten dio, teknologia eta zaintza pertsonala modu eraginkorrean uztartuz.

Proiektu honen bidez, erabiltzaile bakoitzaren behar espezifikoak egokituta, esperientzia pertsonalizatua eskainiko da. Adimen artifizialak ikasketa jarraitua egingo du, erabiltzailearen ohiturak eta lehentasunak kontuan hartuz, gomendioak etengabe hobetzeko. Gainera, aplikazio mugikorraren bidez, erabiltzaileek aholkuak gorde, jarraipena egin eta berrikusi ahal izango dituzte.

Horrez gain, FastLookingek makillaje, moda eta ile-zaintzako markekin lankidetzan jardungo du. Marka horien produktuak modu egokian gomendatuz, erabiltzaileek aukera izango dute gomendatutako produktuak zuzenean erosteko. Horri esker, erabiltzaileek erosketak errazago egingo dituzte, eta proiektuak diru-sarrera iraunkorrak sortuko ditu.

Azkenik, gure proiektuaren balio nagusia pertsonalizazioan, erosotasunean eta berrikuntza teknologikoan datza. FastLookingek erabiltzaileari bere irudi pertsonala hobetzeko tresna eraginkorra eskaintzen dio, eguneroko bizitzan erabilgarria eta erraz integratzeko modukoa.

